

UDALBATZAREN OSOKO BILKURA

2017ko ekainaren 29ko ohiko bilera

BERTARATUTAKOAK:

ALKATE-UDALBURUA

M^o CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

ZINEGOTZIAK

Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA
IKER AGIRRE BARTZENA (1)
IDOIA BLASCO CUEVA
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA
XABIER LOSANTOS OMAR
DIONI ANDRES BLANCO

Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ
DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN

EH-Bildu Leioa

JOKIN UGARTE EGURROLA
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ
ARITZ TELLITU ZABALA

Euskal Sozialistak

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES
ENARA DIEZ OYARZUN
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

Leioako Alderdi Popularra

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

BERTARATU EZ DIRENAK:

Esnatu Leioa

BEGOÑA JUARISTI LINACERO

EUSKARA ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI JN.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

(1) 19:07an heldu zen, 3. puntua eztabaidatzen ari zela.

Leioako udaletxean, elizate honetako Udaltzarak osoko bilkura egin du bi mila eta hamazazpiko ekainaren hogeita bederatzian, hemeretziak eta bost minutuan. Buru izan da **CARMEN URBIETA GONZALEZ alkate-udalburua**, eta alboan agertzen diren zinegotziek parte hartu dute, zeinek Udaltzara izatez eta eskubidez osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatu duten; **CHIARA CAMARÓN PACHECO idazkari nagusiaren** laguntza izan dute, eta helburua ohiko bilera egitea izan da, Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikulua onorioetarako. Alkate-udalburuak alde aurretik dei egin die bertaratutakoei, lehen aipatutako legearen 21.1.c) artikuluaekin bat etorritik, eta Herritarrek Parte Hartzeko Leioako Araudi Organikoak, 2013ko ekainaren 27ko osoko bilkuraren erabakiz onetsi eta urte bereko irailaren 23ko 182 zenbakidun BAO on argitaratutakoak, 22. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoa betez.

Aipatutako orduan, Udaltzarak ekitaldiari hasiera eman dio, lehenengo deialdian, eta, jarraian, ohiko bilera horren gai zerrendari heldu zaio.

I.- EBAZPEN-ZATIA

1.- HONAKO AKTA HAU ONESTEA:

- 2017-05-25eko ohiko osoko bilkura.

Adierazi da aipatutako bilkuraren akta onesteke zegoela, eta Udaltzari eman zaio, onets dezan.

UDALBATZAREN ERABAKIA

Udalbatzaren osoko bilkurak aho batez onetsi du 2017ko maiatzaren 25eko ohiko bileraren akta, horri buruzko oharrik egin gabe.

2.- GOGOAN HARTZEA BEGOÑA JUARISTI LINACERO ANDREAK, ESNATU LEIOA ALDERDIKO ZINEGOTZIAK, BERE KARGUARI UKO EGIN DIOLA, BAITA ZERRENDAKO HURRENGO IZANGAIK ERE:

Udalbatzari osoko bilkuran jakinarazi zaio Begoña Juaristi Linacero andreak, Esnatu Leioako zinegotziak, karguari uko egiteko idatzia aurkeztu zuela udaletxean 2017ko maiatzaren 29an (sarrera-erregistroko zk.: 5627/17), baita idazkari nagusiaren aurrean ere, 2017ko maiatzaren 31n. Zerrendako hurrengo izangaiak ere, Xose Antón Cambeiro Oreiro jaunak, karguari uko egiteko idatzia aurkeztu du 2017ko ekainaren 1ean (sarrera-erregistroko zk.: 5281/17).

3.- ROLIRKA SL ENPRESAK SUSTAPEN PRIVATU BIDEZ HAPOREN 42B GUNEAN, TELLERIA HUTSIK, SUSTATUKO DITUEN ERREGIMEN BEREZIKO 34 UDAL ETXEBIZITZA TASATUEI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA:

Irakurri da Alkatzaren proposamena eta gogoan hartu da Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 20an emandako 31. irizpena (egiaztagiria espedientean jasota dago).

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Proposamena bozkatu eta gero, Leioako Udalbatzak, aldeko hamabi botoren gehiengoarekin (Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzien botoak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzienak), aurkako hiru botorekin (EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzien botoak) eta bost abstentziorekin (Esnatu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzienak), **honako hau erabaki du:**

Oinarria: 2014ko martxoaren 28an, behin betiko onetsi zen Rolirka SL enpresak sustapen pribatu bidez HAPOREN 42B gunean, Telleria Hutsik, sustatuko dituen erregimen bereziko 34 udal-etxebizitza tasatuei (UET) aplikatu beharreko araubidea arautzen duen udal-ordenantza.

Oinarria: Alkatzaren otsailaren 14ko 290/2014 Dekretuz hasi zen adierazitako UETeak zozketa bidez adjudikatzeko eskaerak onartzeko prozedura.

Oinarria: Norako Promoción Inmobiliaria SL enpresak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 78. artikulua oinarri hartuta, aldaketa-proposamena aurkeztu zuen 2017ko maiatzaren 10ean (sarrera erregistroko zenbakia: 4801) ordenantza honetarako: Rolirka SL enpresak, sustapen pribatu bidez, HAPOREN 42B gunean, Telleria Hutsik, sustatuko dituen erregimen bereziko 34 udal etxebizitza tasatuei (UET) aplikatu beharreko araubidea arautzen duen udal-ordenantza.

Oinarria: udal-idazkariak egindako prozedura-txostena (espedientean jaso da) eta aldaketaren eskatzaileak

agertutako arrazoi eta beharrak.

Leioako Udalbatzaren osoko bilkurak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua araberak daukan ordenantzak onesteko ahalmena gauzatu, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasieran onestea Rolirka SL enpresak sustapen pribatu bidez HAPOn 42B gunean, Telleria Hutsik, sustatuko dituen erregimen bereziko 34 udal etxebizitza tasatuei (UET) aplikatu beharreko araubidea arautzen duen ordenantzaren aldaketa; zehazki, eduki hauek txertatuko dira:

- Ordenantzaren 3. artikulua aldatuko da.

Honako hau dioen lekuan:

“4. Aurrekoak Foru Ogasunaren zaurtagiri bidez, behin-behineko Kalifikazioako dataren aurretik amaitu berri den zerga-ekitaldiari dagokiona, eta aplikagarri izango dira Erregimen Orokorreko BOE aplikatzen zaizkien justifikazio baldintzak”.

Hau esan beharko du:

“4. Gutxieneko eta gehieneko diru-sarrerak egiaztatzeke, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztu beharko da edo, bestela, zerga-ekitaldiari dagozkion PFEZaren atxikipenen zaurtagiri ofizialak, baldin eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko epea iraungita, lehenengo eskualdaketarako behin-behineko Kalifikazioaren dataren aurretik eman berri badira; salbu eta urtebete igaro bada behin betiko kalifikazioa egin zenetik. Kasu horretan, kontuan hartuko da kontratuak ikus-onesteko aurkeztu ziren data. Horrek eraunduko ditu, hain zuzen ere, lehenengo, bigarren eta hurrengo eskualdaketak. Bestalde, araubide orokorreko UETei aplikatzen zaizkien justifikazio-betekizunak eskatuko dira”.

- Xedapen iragankorrak gehituko dira:
 - Lehenengo xedapen iragankorra

“2014ko ekainaren 9an egindako zozketan onartutako adjudikaziodunek, beren gutxieneko eta gehieneko diru-sarrerak justifikatzeke, 2012. urtekoak egiaztatuko dituzte”.

- Bigarrena xedapen iragankorra

“Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 68. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera egiten diren adjudikazioetan –etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nabiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da agindu hori–, diru-sarrerak justifikatzeke, kontuan hartuko dira adjudikazioaren, salerosketa-kontratuaren edo hori ikus-onesteko aurkeztutako dataren aurreko zergaldikoak”.

- Hirugarren xedapen iragankorra

“Behin betiko kalifikazioa egiteko orduan jabetza osoko araubidean adjudikatu ez diren etxebizitzak alokairura bideratu abalko dira; gutxienez, 10 urtez alokatu beharko dira, behin betiko kalifikazioaren egunetik zenbatzen hasita, eta honako arau hauei jarraituko zaie:

- a) *Adjudikaziodunek ohiko bizileku iraunkor gisa erabili beharko dute etxebizitza.*
- b) *Urteko gehieneko errenta finkatzeke, Etxebizitza sailburuaren 2010eko azaroaren 3ko Aginduak 21. artikuluan ezarritako ebunekoak aplikatuko zaizkio –edo agindu hori ordeztu dunearenak– etxebizitzak eta berorien eranskinak jabetza osoan kalifikatzeke prezioari.*
- c) *Alokatzeke lagatzen diren etxebizitzei ordenantza honen xedapenak aplikatu beharko zaizkie, ondoko gaietako dagokienez –betiere, ez badira araubide iragankorrek bateraezina–: etxebizitza-beharrak, bizikidetzaren unitateen gutxieneko eta gehieneko diru-sarrerak, adjudikazioaren parte hartzeke errolda-baldintzak, kalifikazioa, kontratuak ikus-onestea, lehenengo erostea eta atzera eskuratzea,*

adjudikazio-prozedura, errentaria etxebizitzan bizitzeko beharra eta araubide osagarria.

- d) *Etxebizitzak eta berorien eranskinak kudeatzeko, titulartasuna merkataritza-sozietate espezializatu bati eskualdatu abalko zaió”.*

Bigarrena.- Jendaurrean erakusteko eta interesdunei entzunaldia eskaintzeko aldia irekitzea erabakitzea, arestian aipatutako 7/1985 Legearen 49. artikulua ezarritakoa betez, eta hogeita hamar eguneko epea ezartzea (gutxienezkoa) erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, baita udalaren gardentasuneko atalean ere. Ildo horretan, kontuan hartu behar da behin-behineko erabakia behin betikotzat joko dela erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean. Hala gertatuz gero, erabakia behin betikoa bihurtu delako jakinarazpena argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalaren gardentasuneko atalean, ordenantzaren testu osoarekin batera. Haatik, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten bada, ebatzi egingo dira eta, hala badagokio, erabakia behin betikotzat xedatu eta argitaratuko da, aplikatu beharreko aurreko araudia indargabetuta.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea Norako Promoción Inmobiliaria SL enpresari, ondorio egokiak izan ditzan.

4.- LEIOAKO BIGARREN MAILAKO HORNIKUNTZA-SAREA BIRJARTZEKO PLANA ONESTEA:

Irakurri da Alkatetzaren proposamena eta gogoan hartu da Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2017ko ekainaren 20an emandako 32. irizpena (egiaztagiria espedientean jasota dago).

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Bozkatu egin ostean, Udalbatzaren osoko bilkurak, aldeko hamabi botoren gehiengoarekin (bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko bederatzi zinegotzianak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzianak) eta zortzi abstentziorekin (bilerara bertaratutako Esmatu Leioako hiru zinegotzianak, EH Bildu Leioa taldearen hiru zinegotzianak, eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzianak), **honako hau erabaki du:**

Udalaren osoko bilkurak 2016ko otsailaren 24ko batzarrean hartu zuen 5. akordioaren arabera, akordio hau hartu zela kontuan hartuta:

"Lehenik.- 2.000ko azaroaren 23an ospatutako Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Batzar Orokorrean onartutako Jarduketa Planarekin bat egitea eskatzea. Horretarako beharrezkoa den "Leioako Udalaren eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren arteko Hitzarmena, edateko uraren banaketarako bigarren mailako sarea kudeatu, mantendu, ustiatu eta birjartzeko" sinatzea.

Considerando que mediante acuerdo plenario nº 5 adoptado en la sesión celebrada el 24 de febrero de 2016, se acordó:

"Primero.- Solicitar la incorporación al Plan de Actuaciones aprobado por la Asamblea General del Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia en la sesión de 23 de noviembre de 2.000, implicando la suscripción del documento denominado "Convenio a formalizar entre el Ayuntamiento de Leioa y el Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia para la gestión, mantenimiento, explotación y reposición de la red secundaria local de distribución de agua potable".

Bigarrenik.- Alkatetza-Presidenteari ahalbidetzea behar diren beste dokumentu publiko eta pribatuak sinatzeko aipatutako hitzarmena eta hau garatzen dituzten dokumentuak formalizatu ahal izateko."

Segundo.- Facultar a la Sra. Alcaldesa-Presidenta para la suscripción de todos los documentos públicos y privados que sean necesarios para la formalización del convenio y documentos que lo desarrollen."

2016ko apirilaren 01ean aipatutako Hitzarmena sinatu zela kontuan hartuta.

Considerando que con fecha de 01 de abril de 2016 se procedió a la firma del mencionado Convenio.

2016ko ekainaren 07an eta 6.171 erregistro zenbakiarekin Udal Sareak S.A. gure herriko bigarren mailako ur sareari dagokion PRM-066-17-04 birjatze planaren 1. berrikustea eta aurrekontuen laburpen taula, onartuta izan dadila aurkeztu zela kontuan hartuta.

Considerando que con fecha de 07 de junio de 2017 y registro de entrada 6.171 Udal Sareak, S.A. hace entrega para su aprobación de la 1ª revisión del plan de Reposición PRM-066-17-04 y la tabla presupuestaria resumen del Plan de Reposición correspondiente a la red secundaria de abastecimiento del municipio.

Bulego Teknikoan 2017ko ekainaren 13an gaiaren inguruko txostena kontuan hartuta..

Considerando el contenido del informe emitido por la Oficina Técnica con fecha de 13 de junio de 2017

Leioako Udaleko Osoko Bilkurak, ordenamendu juridikoak eta zehatz-mehatz, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen Legearen 22.2.ñ artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, honako AKORDIOA hartzen du:

El Ayuntamiento-Pleno de Leioa, en uso de las atribuciones establecidas por el ordenamiento jurídico y en concreto, la establecida por el art. 22.2.ñ de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, adopta el siguiente ACUERDO:

LEHENENIK: Gure herriko bigarren mailako ur sareari dagokion PRM-066-17-04 birjatze planaren 1. berrikustea eta aurrekontuen laburpen taula onestea, beronen balioa 1.544,953,98 € (BEZ gabe) delarik.

PRIMERO: Aprobar 1ª revisión del plan de Reposición PRM-066-17-04 y la tabla presupuestaria resumen del Plan de Reposición correspondiente a la red secundaria de abastecimiento del municipio. siendo el importe de 1.544,953,98 € (sin IVA).

BIGARRENIK: Birjatze plana Addendaren sinaduratik gehienez 10 urteren buruan gauzatu behar dela onartzea, beronen hainbat urterako inbertsioen konpromisoarekin.

SEGUNDO: Aprobar el plazo máximo de ejecución del Plan de Reposición de 10 años desde la firma de la Addenda con compromiso de inversiones plurianuales,

HIRUGARRENIK: Akordio honi izenpetutako taula eta planoak atxikitzea.

TERCERO: Acompañar el presente acuerdo de tabla y planos suscritos.

II.- UDALBATZAK UDAL-GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGINDAKO KONTROLA ETA JARRAIPENA

5.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO EBAZPENAK, 2017-05-18TIK 2017-06-21ERA

BITARTEAN:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazketan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onartu zuen Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua betez, osoko bilkuraren espedientean jaso da, aztertu egin dadin, epigrafean aipatutako epean Alkateak emandako dekretuen kopia; nolana ere, dagokien tokian artxibatu ahalko dira gero.

Osoko bilkura **jakitun** geratu da.

5.- PREMIAZKO MOZIOAK

Udal Araudi Organikoaren 41. artikulua kontuan hartuta, alkate andreak Udaltzaren osoko bilkura honen gai-zerrendan gehitu zuen, premiazko gaien barruan, ondoko gai hau: **EKAINAREN 28KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, “LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL, BISEXUAL ETA INTERSEXUALEN ASKAPENERAKO NAZIONARTEKO EGUNA”**, Bozeraileen Batzordeak 2017ko ekainaren 28ko bileran onetsitakoa.

BOZKETA ETA UDALBATZAREN ERABAKIA

Bozkatu ostean, Udaltzak aho batez erabaki du, osoko bilkurara bertaratu diren hogei zinegotzien botoen bitartez, **jarraian transkribatutako adierazpen instituzionala berrestea**, alegia, Bozeraileen Batzordeak 2017ko ekainaren 28ko bileran onetsitakoa:

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
EKAINAK 28
“LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL,
BISEXUAL ETA INTERSEXUALEN
ASKAPENERAKO NAZIONARTEKO
EGUNA”**

Lege-aurrerapen handia egin den arren, sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aniztasuna oraindik ere bada diskriminazioa, estigmatizazioa eta gizarte-bazterketa eragiteko arrazoiak. Era berean, jarrera homofoboak berpizten ari dira gure gizartean, eta jarrera horien bidez ahaleginak egiten dira heterosexismoa berresten, azken hau aukera afektibo-sexual bakarra balitz bezala.

Udal honek gogor gaitzesten ditu lesbianen, bisexualen, transexualen eta intersexualen kontrako diskriminazio eta indarkeria-mota

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 28
DE JUNIO
“DÍA INTERNACIONAL DE LA
LIBERACION LESBIANA,
GAY, TRANSEXUAL, BISEXUAL E
INTERSEXUAL”**

A pesar de los importantes avances legislativos, la diversidad en la orientación sexual y en la identidad de género continúa siendo causa de discriminación, estigmatización y de exclusión social. Dándose una reactivación de actitudes homófobas que intentan reafirmar el heterosexismo como única opción de afectivo-sexual en nuestra sociedad.

Este ayuntamiento considera fundamental condenar enérgicamente las formas de violencia y discriminación contra las personas lesbianas, homosexuales, bisexuales, transexuales e intersexuales. Es por ello que se ve esencial, que

guztiak. Horregatik, bada, funtsezkoa da erakunde publikoek hainbat politika eta ekintza bultzatzea pertsona LGTBI+-en eskubideak defendatzeko eta sexu-jazarpena, sexismoa, sexu-erasoa eta homofobia prebenitzeko.

Era berean uste du funtsezko eta beharrezkoa dela bai sexualitatean eta bai afektibitatean normaltasunez hezitzea, betiere pertsona guztien aniztasun afektibo-sexuala errespetatuz.

Leioako Udalak bat egiten du gay, lesbiana, transexual, bisexual eta intersexualen eskubideen berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka abian den gizarte-aldarrikapenarekin. Eta, Lesbiana, Gay, Transexual, Transgenero, Bisexual eta Intersexualen Askapenerako Nazioarteko Eguna dela-eta, dei egiten die herritarrei ekainaren 28an antolatuko diren ekitaldietan parte har dezaten.

todas las instituciones públicas abordemos distintas políticas y medidas de acción pública para promover la defensa de los derechos de las personas LGTBI+ que prevengan el acoso, el sexismo, el abuso sexual y la homofobia.

De igual manera, considera fundamental y necesario educar en la sexualidad y en la afectividad de manera normalizada, favoreciendo una sociedad donde se respete y se atienda la diversidad afectivo-sexual de todas las personas.

El Ayuntamiento de Leioa se suma a la reivindicación social por la igualdad de derechos y no discriminación de gays, lesbianas, transexuales, transgénero, bisexuales e intersexuales y anima a la ciudadanía a participar en los actos que con tal motivo se promueven el 28 de junio, Día Internacional de la Liberación Lesbiana, Gay, Transexual, Transgénero, Bisexual e Intersexual.

7.- GALDE-ESKEAK

Eta hogeita bat ordu eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza Udalburutzak egintza amaitutzat jo du eta Idazkaritzari dagokion akta idazteko agindu dio. Adostutako baldintzetan onetsi egin da eta nik neuk, idazkari nagusia naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARI NAGUSIA